



BALIO PROPOSAMENA

Bezereen premiak eta arazoak

Gazteek ez dute nahiko dirurik materialak erosteko, autobusa hartzeko egun guztiak, ikastolako edo unibertsitateko matrikula ordaintzeko eta ikasteko baliabideak ordaintzeko.

Gero eta zailagoa da ikasgelarako material guztiak ordaindu ahal izatea, eta gurasoek ezin dute dena ordaindu. Horrez gain, egunero autobus bat hartu behar izatea lanera edo ikastera joan ahal izateko diru asko gastatzen dute. Gainera, gazteak parrandan doazenean, batzuetan ez dute joan edo etorri bezala, edo nahiago dute autobusez edo taxiz joan, edan ahal izateko, eta festaren eta taxien artean diru asko gastatzen da. Halaber, oporretan joatean, garraio, hotel, bazkari edo han egiten dituzten jardueren artean ere diru asko gastatzen dute.

Gure zerbitzua

Gure zerbitzuekin egin behar duzun guztia egiten jarraituko duzula ziurta dezakezu, baina diru gehiegi gastatu gabe. Gure deskontu-zerbitzuek diru-arazoak dituzten edo beste gauza batzuetarako diru pixka bat aurreztu nahi duten pertsona askori laguntzen diete.

Deskontuak garraio publikoetan:

Autobusez joan eta egunero hartu behar dutenek, irabazten dutenaren zati bat lanera joateko gastatzen dute. Ikasleek gauza bera egiten dute; ikastetxeak jartzen dien autobusik ez badute, lineakoa hartu behar dute, eta dirua gastatzen ari dira. Gure deskontuei esker, gastu horiek askoz txikiagoak izango dira. Baliteke pertsonen traba handia egitea, baina benetan oso erraza izango da gure zerbitzuak erabiltzea.

Deskontuak eskola-materialetan

Ikasleentzat ere deskontu batzuk eskaintzen ditugu. Ikasketetarako behar duten material guztia (koadernoak, liburuak, kutxatilik...) erosteko diru asko gastatzen dute gurasoek, behar baino gehiago. Deskontuekin material horiek guztiak askoz eskuragarriagoak izango dira mundu guztiarentzat. Material onak izateak askoz ere gehiago errazten du zure ikasketak hobeak izatea, zure ikasketetarako baliabide gehiago dituzulako. Eskolako eta unibertsitateko matrikulentzako deskontuak ere baditugu.

Deskontuak alokairuetan

Kuadrillek haien lekua izan ohi dute denbora pasatzeko edo edateko. Ez daukanez oso zaila egiten zaie leku bat aurkitzea, oso garestiak direlako edo oso egoera txarrean daudelako. Horregatik guk egoera egokian eta oso prezio onean dauden



Assa Ikastola
2024-2025 ikasturtea
Batxilergo 1: Ekonomia

Canvas eredua - Balio proposamena

lokalen alokairuak eskaintzen dizkiegu, alokairua ordaindu ahal izateko. Ez dugu lokala salduko, bestela ez litzateke batere errentagarria izango gure negozioarako. Autobusen alokairuak ere eskaintzen ditugu txoferrarekin, ikastetxeetako txangoetarako edo oporretara joaten diren lagun taldeentzat.

Txoferra duen autobus bat alokatzen badute, aparteko ordainsari bat ordaindu beharko dute. Oporretan dagoen bitartean, txoferra prest egongo da, beti ere berarekin adostutako ordutegiaren barruan bada.